



AZTERTU: DISEINATU ARRAPALA BAT, AUTOAK URRUNAGO JOATEKO

Jostailuzko auto bat eta zurez edo kartoiz egindako arrapala bat erabiliz, egin proba zenbait altuerarekin, arrapalaren azpian tamaina desberdinetako liburuak edo kaxak jarritz. Markatu noraino joaten den autoa aldi bakoitzean. Aldaparik handiena al da beti onena? Ba al dago arrapala-altuera perfekturik zure autoa ahalik eta urrunen eramateko?

MATERIALAK

- | | |
|---|--|
| <input type="checkbox"/> Liburuak edo kaxak | <input type="checkbox"/> Kartoiz edo zurez egindako kaxa bat |
| <input type="checkbox"/> Auto bat | <input type="checkbox"/> Distantziak markatzeko zerbit (adibidez, <i>post it</i> batzuk edo zentimo-txanponak) |

GAKOAK

- Erabili arrapala zabal bat, autoa atera ez dadin, edo, bestela, diseinatu kolpeleungailuak ertzetarako!
- Erabili arrapala eta auto bera aldi bakoitzean.
- Zurezko arrapala bat erabiltzen baduzu, heldu batek begiratu dezala ezpalik edo ertz zorrotzik duen.

Gehiago nahi baduzu...

ARRAPALA-ALTUERARIK EGOKIENA ALDATZEN AL DA GAINAZALA ALDATUZ GERO? EGIN ARRAPALAREN ESPERIMENTUA GAINAZAL BATEAN BAINO GEHIAGOTAN (ADIBIDEZ, ALFONBRA GAINEAN, HARTXINTXARRETAN, ZEMENTUTAN, ZUREZKO ZORUAN).